



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

VII. legegintzaldia

Iruña, 2010eko ekainaren 24a

73. ZK.

A U R K I B I D E A

E SAILA:

Jabeldurak, mozioak eta adierazpen politikoak:

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuaren premiaz da ez dezan murriztu Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko Foru Legean nahiz Osasuneko zuzendari nagusiaren abenduaren 15eko 2545/2009 ebazpenean jasotzen diren sei kontusailetatik batere. Osasun Batzordeak bazter utzia (2. or.).

F SAILA:

Galderak:

- Galdera, interneteko banda zabaleko konexioari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (3. or.).
- Galdera, Indarkeria Sexistaren aurkako Neurriak Hartzeari buruzko 22/2002 Foru Legea betetzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (5. or.).
- Galdera, nazioko eta nazioarteko adopzioei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (7. or.).
- Galdera, Orreagako Kolegio-elizari edo harekin lotutako entitateei 2000tik hona emandako laguntzei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (8. or.).
- Galdera, familia-bitartekotzari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (13. or.).
- Galdera, “Seinaleztapena, zabalkuntza grafikoa eta teknologia berriak Nafarroako erromanikoari aplikatuta” izeneko kontusailari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (14. or.).

G SAILA:

Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:

—Antsoingo Udalari buruzko fiskalizazio txostena, 2008ko ekitaldikoa, Comptos Ganberak egin. (16. or.).

E saila:
JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da ez dezan murriztu Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko Foru Legean nahiz Osasuneko zuzendari nagusiaren abenduaren 15eko 2545/2009 ebazpenean jasotzen diren sei kontusailetatik batere.

OSASUN BATZORDEAK BAZTER UTZIA

Ana Figueras Castellano andreak ondoko mozioa aurkeztu zuen: "Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da ez dezan murriztu Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko Foru Legean nahiz Osasuneko zuzendari nagusiaren abenduaren 15eko 2545/2009 ebazpenean jasotzen diren sei kontusailetatik batere"

Legebiltzarreko Osasun Batzordeak 2010eko ekainaren 17an egindako Osoko Bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako mozioa baztertzea. Mozio hori 2010eko maiatzaren 28ko 60. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2010eko ekainaren 21ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

F saila:
GALDERAK

Galdera, interneteko banda zabaleko konexioari buruzkoa.**FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA**

Ion Erro Armendáriz jaunak galdera egin du interneteko banda zabaleko konexioari buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2009ko abenduaren 24ko 123. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2010eko urtarrilaren 19an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

ERANTZUNA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua foru parlamentarien elkarteari atxikitako foru parlamentari Ion Erro Armendarizek informazioa eskatu du Nafarroan banda zabaleko internet-konexioarekin izandako arazoei buruz (PES-342/09). Hona Berrikuntza, Enpresa eta Enplegu kontseilariaren erantzuna:

Lehendabizi, adierazi beharra dago Telekomunikazioei buruzko azaroaren 3ko 32/2003 Lege Orokorren arabera, telekomunikazioak interes orokorreko zerbitzuak direla, lehia askeko araubidean ematen direnak.

Bestalde, telekomunikazioen arloko eskumenak Estatuarenak dira (Konstituzioaren 149. artikulua).

Halaber, telekomunikazioei buruzko legediari erreparatuz, adierazi behar dugu Telekomunikazioei buruzko 32/2003 Lege Orokorak zerbitzu unibertsalaren prestazioa definitzen duela, hain zuzen ere honakoa esanez: amaierako erabiltzaile guztiek telefono sare publikoarekin kokapen finko batekin konexio bat lortzeko aukera, hain zuzen ere jendearen eskura dagoen telefono zerbitzu bat emateko, betiere eskabideak arrazoizkoak badira.

Konexio horrek honakoetarako bidea eman behar dio erabiltzaileari:

- Telefono bidezko deiak egiteko eta jasotzeko.
- Fax bidezko komunikazioak.
- Datuen komunikazioak internetera modu funtzionalean sartu ahal izateko moduko abiaduran.

Telefónica de España, S.Ak, operatzaile nagusi bezala, zerbitzu unibertsala eskaintzeko betebeharra dauka.

Telekomunikazioen Merkatuaren Batzordea da telekomunikazioen merkatuetan operatzaileek bete behar dituzten berariazko betebeharrak ezarri eta ikuskatzeko xedea duen erakunde publikoa; halaber, merkatuetan ikus-entzunezko zerbitzuen lehia sustatu behar du, hura erregulatzen duten arauetan ezarritakoaren arabera, operatzaileen arteko gatazkak ebatzi behar ditu eta, kasua bada, arbitraje organo gisa ebatzi behar ditu haien arteko gatazkak.

Horrenbestez, Nafarroako Gobernuak ez du inolako ahalmenik operatzaileei eskatzeko prezioak finka ditzaten, zerbitzuaren kalitate hobetu dezaten edo estaldura zabaltzeko inbertsioak egin ditzaten.

Internetera sartzeko mugen arazoia da operatzaile pribatuek ez dituztela behar adinako azpiegiturak ezarri, haien errentagarritasun eskasa dela eta.

Gabezia horiek arintze aldera, Nafarroako Gobernuak erabaki zuen sare bat zabaltzea landa eremuetarako, eta horren inguruan aurreko legegintzaldian adierazitako helburuak bete egin dira.

Hala eta guztiz ere, errentagarritasun eskasa dela-eta konexiorik ez dagoen eta operatzaileak iristen ez diren landa-eremuei banda zabaleko internet zerbitzua emateko, Nafarroako Gobernuak, 2004an, erabaki zuen banda zabalerako irispi-dea bideratzeko sare bat zabaltzea.

Horri dagokionez, estaldurarako helburu gisa definitzen dira ADSL edo kable bidezko internetik ez duten 100 biztanle baino gehiagoko udalak eta biztanle guñeak (ADSLa edo kablea dira Nafarroan dauden zerbitzu horren operatzaileek erabiltzen dituzten teknologia bakarrak).

Iberbanda enpresa izan zen sarea zabaltzeko eta zerbitzua emateko lehiaketako adjudikazio-hartzailea. WIMAX teknologiaren bidez, sareak, gaur egun, 3.000 bezero ingururi ematen die zerbitzua. Iberbandak erabilitako teknologiari esker, uhin erradioelektrikoen bidezkoa, lehiaketarako baldintzen orrian exijitzen zena baino biztanle guñe gehiagori eman zaie estaldura.

Foru Komunitatean azpiegitura berekiarekin eta Iberbanda bidez (Gobernuaren azpiegiturarekin) zerbitzua ematen duten telekomunikazioetako operatzaileek (Telefónica de España eta Ono) emaniko datuen arabera, banda zabaleko estaldurarik (Iberbanda bidezko zerbitzuaren kasuan, % 20tik beherako estaldura duten biztanle guñeak hartu dira aintzat) ez duten biztanle guñeen zerrenda ba erantsi dizut. Gehienak auzoak, base-riak edo guñe sakabanatuak dira, non biztanleriaren dispersioarekin batera baldintza orografiko bereziak baitaude, uhinak iristea zail egiten dutenak.

Nolanahi ere, eta Nafarroako Gobernuak hiriguneen eta landa guñeen arteko arrakala digitala gutxitzeko eta banda zabaleko estaldura biztanleriaren % 100eraino zabaltzeko duen borondatea betetzeko eta, halaber, gaur egun banda zabala eskuratzeko modurik ez duten guñe sakabanatuak eta barreiatuta bizi diren herritarren arazoei konponbidea emateko, Nafarroako Gobernuak 2008an eta 2009an deialdi bat egin zuen, satelite bidezko konexiorako laguntzak emateko, bai partikularrei bai enpresei.

Iruñean, 2010ko urtarrilaren 12an

Berrikuntza, Enpresa eta Enplegu kontseilaria:
José María Roig Aldasoro

Guneen zerrenda

Adoain	Aientsa
Aitasemegi	Anotz
Antxoritz	Ardaitz
Argiñaritz	Aritzaleta
Arostegi	Arrarats
Arrieta	Artariain

Artikutza	Artozki
Aizpurgi	Aietxu
Azkar	Azparren
Bariain	Barindano
Beorburu	Beratsain
Biotzari	Etxalatz
Eguarats	Elkoatz
Elia	Endara
Errazkin	Errea
Etxartea	Ezkanitz
Garrues	Gaskue
Gorosurreta	Gorraitz-Artzibar
Genbe	Idoate
Idoi	Iltzarbe
Imirizaldu	Inbuluzketa
Irotz	Irure
Lakabe	Lakain-Apezborro
Lapoblación	Larrapil-Sarriku
Larraun-Orbaitzeta	Larraiotz
Latasa-Odieta	Latse
Lerrutz	Lete
Leiun	Liberry
Lusarreta	Madaria
Murillo-Berroia	Muskitz
Nuestra Señora de Kodes	Nuin
Olaberry	Olaldea
Olazur	Olleta
Ongotz	Otsakain
Osinaga	Ozkoidi
Sagaseta	Saldise
San Isidro del Pinar	Zaragueta
Sarasibar	Sarekoa
Untzu	Uritz
Urritzelki	Urritzokieta
Urumea	Uztarroze
Vergalijo	Hiriberri-Artzibar
Hiriberri-Deierri	Zabaldika
Zandueta	Zugarramurdi
Zunzarren	Zuriain
Leazkue	Labeaga

Galdera, Indarkeria Sexistaren aurkako Neurriak Hartzeari buruzko 22/2002 Foru Legea betetzeari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Ioseba Eceolaza Latorre jaunak galdera egin du Indarkeria Sexistaren aurkako Neurriak Hartzeari buruzko 22/2002 Foru Legea betetzeari buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2009ko abenduaren 24ko 123. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2010eko urtarrilaren 20an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

Hezkuntzako kontseilariaren erantzuna

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Ioseba Eceolaza Latorrek galdera egin du eta idatzizko erantzuna eskatu, Indarkeria Sexistaren aurkako Neurriak Hartzeari buruzko 22/2002 Foru Legea betetzeari buruz (PES-00327). Hona Nafarroako Gobernuak Hezkuntza kontseilariaren erantzuna:

Hezkuntza Departamentuak proposatuta Nafarroako Gobernuak onetsi dituen hezkuntza curriculum guztiak, haur hezkuntzari, lehen hezkuntzari, derrigorrezko bigarren hezkuntzari, batxilergoari eta helduen hezkuntzari buruzkoak, generoaren berdintasunaren ikuspegitik egin dira, 22/2002 Foru Legean eta gaiari buruz geroztik estatuan nahiz foru erkidegoan eman diren arauetan ezarritakoa errespetatuta.

Honakoak dira irakaskuntza horien curriculumak ezartzeko foru dekretuak:

- Martxoaren 26ko 28/2007 Foru Dekretua, Nafarroako Foru Komunitatean haur hezkuntzako lehen zikloa arautzen duena eta hori ematen duten ikastetxeek bete beharreko baldintzak eta ziklo horren hezkuntza edukiak ezartzen dituena.

- Martxoaren 19ko 23/2007 Foru Dekretua, Nafarroako Foru Komunitateko haur hezkuntzako bigarren zikloko irakaskuntzetarako curriculumak ezartzen duena.

- Martxoaren 19ko 24/2007 Foru Dekretua, Nafarroako Foru Komunitateko lehen hezkuntzako irakaskuntzetarako curriculumak ezartzen duena.

- Martxoaren 19ko 25/2007 Foru Dekretua, Nafarroako Foru Komunitateko derrigorrezko bigarren hezkuntzako irakaskuntzetarako curriculumak ezartzen duena.

- Maiatzaren 12ko 49/2008 Foru Dekretua, Nafarroako Foru Komunitateko batxilergoko ikasketen egitura eta curriculumak ezartzen dituena.

- Uztailaren 20ko 61/2009 Foru Dekretua, helduen oinarrizko hezkuntza arautu eta ikasketa horien egitura eta curriculumak ezartzen dituena Nafarroako Foru Komunitatean.

Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoak, oinarrizko printzipioetako baten gisara ezarri zuen bi sexuetakoa herritar guztiei kalitatezko hezkuntza emateko betebeharra, hezkuntza sistemaren maila guzti-guztietan. Printzipio horri jarraituz idatzi ziren aipatu dekretuetako curriculum edukiak.

Halaber, dekretu horiek Nafarroako Gobernuari eta Lehendakariari buruzko abenduaren 3ko 14/2004 Foru Legeko 52. artikuluan ezarritako prozedurari jarraituz idatzi ziren. Izan ere, lege horren arabera, izapidetzen ari den arauarekin batera kasuko txosten bat gehitu beharra dago, arauan ezarritako neurriek sexua dela-eta izan dezaketean eraginari buruzkoa.

Aurrekoaz gainera, eta arau indardunetan jasotzen diren genero-berdintasunaren arloko jarraibideak garatzeko, Hezkuntza Departamentuak 2009-2011 urteetarako Berdintasun Plana garatu du, non bi helburu estrategiko jasotzen baitira, bai eta haien garapena ere. Helburu horietan, izan ere, berdintasuna eta generoko berdintasuna txertatzeko esparrua jaso zen.

2009-2010 ikasturte akademikoan plan hori zehazteko jarraibideak ezarri ziren, hain zuzen ere Antolamenduaren, Kalitatearen eta Berrikuntzaren zuzendari nagusiaren uztailaren 3ko 360 Ebazpenean ageri dira. Izan ere, haren bidez onesten dira 2009-2010 ikasturtean haur hezkuntzako bigarren zikloko, lehen hezkuntzako, derrigorrezko bigarren hezkuntzako eta batxilergoko irakaskuntzak eskaintzen dituzten ikastetxe publikoen antolamendua eta funtzionamendua arautzeko jarraibideak.

22/2002 Foru Legeko 5.4 artikulua aplikazioari dagokionez, jakitera ematen dizut Berdintasun Planean zenbait neurri eta jarduerak jasotzen direla

irakasleei gaikuntza emateko, hain zuzen ere berdintasuna ikasleen gaitasunen garapenean eta zentroyen proiektuetan txertatzeko.

Hezkuntza Departamentuak Zentroyen Antolamendurako eta Funtzionamendurako Jarraibideetan jasotako urteko lehenetasunen artean sartu du berdintasunari eta hezkidetzari buruzko helburuak ikastetxe bakoitzeko urteko programazio orokorrean jasotzea. Horretarako, behar diren prestakuntza eta laguntza eskaini dira irakasleentzako prestakuntza planaren bitartez.

Lehenetasunezkoztat jo dira haurren nortasun pertsonala garatzea errazten duten ikasketak, sexuarekin lotutako estereotipoen harantzago, eta ikasketa horiek oinarritzekoztat jo dira generoko indarkeriaren era guztietako adierazpenak deuseztatuko direla bermatzeko.

Bigarren hezkuntzako praktiketako irakasleei zuzendutako prestakuntzan, Berdintasun Planari buruzko eta hura irakaskuntza-ekintzan txertatzeko moduari buruzko modulu bat sartu zen.

Irakasleentzako prestakuntza programa bat diseinatu da, *Hezkidetzan* izena daramana. Haren bidez, ikastetxeei prestakuntza, aholkua eta materialak ematen zaizkie. Joan den ikasturtean hasi zen, eta planteatuta dago lau ikasturtez iraunen duela. Lau ikasturte horietan zentro bakoitzak zenbait jarduera eramanen ditu aurrera hezkidetzako modu progresiboan baldintza gisa integratzen joateko, hain zuzen ere berdintasuna eta generoko indarkeriaren deuseztatzea lortzeko aurrera egiteari begira.

Prestakuntza eta aholku prozesu horretan laguntzeko zenbait material orientagarri prestatu dira:

- Ikastetxearen diagnostika errazteko eta hobetzeko konpromisoak definitzeko galde-sorta.
- Ikastetxearen konpromisoak urteko programazio orokorrean integratzeko gida.
- Lan egiteko materialak eta haiek ikasgelan aplikatzea, etapa guztietan.
- Gaiari buruzko zenbait unitate didaktiko eta irakurgai, erreferentzia gisa erabil daitezkeenak indarkeriari aurrea hartzeko eta hezkidetzaren balioak integratzeko ikasgai desberdinetan (hizkuntza, literatura eta herritartasunerako hezkuntza). Lehen hezkuntzarako eta bigarren hezkuntzarako dira.
- Hezkidetzarako “maleta ibiltari” batzuk prestatu dira. Haietan, liburuak, ipuinak, gidak eta laguntzako eta erreferentziako materialak bildu dira, haur hezkuntzarako, lehen hezkuntzarako eta

bigarren hezkuntzarako. *Hezkidetzan* programan parte hartzen duten ikasteentzat dira. Maleta horietan liburu eta gida batzuk jaso dira berariaz, haurrengan balizko sexu-abusuak identifikatzeko eta nerabeen arteko harremanetan orientabideak emateko eta indarkeria saihesteko.

Diseinu-fasean dago, berriz, eremu birtual baten sorrera. Haren bidez, izan ere, honakoak eskaini nahi zaizkie irakasleei eta ikasleei:

- Dokumentuen eremu zabal bat (liburutegia, *on line* baliabideak, Interneteko estekak, eta abar).
- *On line* gisako hezkidetzako prestakuntza-unitate batzuk, Moodlekin erabiltzeko.
- *Hezkidetzan* programan parte hartzen duten ikastetxeek elkarren artean materialak eta esperientziak trukatzeko plataforma.

Berdintasunerantz aurrera egiteko lana aitortzeari dagokionez, ikasturte honetan sari berri bat sortu da berdintasuneko eta hezkidetzako helburuak programazioan sartzen dituzten ikastetxeen berrikuntza-proiektuetarako, indarkeriari aurre hartzeko beste modu baten gisara, bizikidetasuna hobetzearekin eta gatazkei konponbidea ematearekin loturiko proiektuez harantzago.

Hori jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamendua betez.

Iruñean, 2010eko urtarrilean

Hezkuntza kontseilaria: Alberto Catalán Higuera

Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietako kontseilariaren erantzuna

Nafarroa Bai parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Ioseba Eceolaza Latorre jaunak galdera egin du Indarkeria sexistaren aurkako neurri integralak hartzeari buruzko uztailaren 2ko 22/2002 Foru Legearen betetzeari buruz (PES 337/09). Hona hemen Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietako kontseilariaren erantzuna:

Eceolaza jaunak hiru galdera egiten ditu gai honi buruz. Horietatik lehenengoa baizik ez da sartzen departamentu honen eskumenen esparruan. Honako hau da galdera:

1.- Nafarroako Gobernuak bidali al ditu Parlamentura lege horren 3,3 artikuluan aipatzen diren urte anitzeko ekintza plan integralak?

Horri buruz adierazi beharra dago egiazki Indarkeria sexistaren aurkako neurri integralak hartzeari buruzko uztailaren 2ko 22/2002 Foru Legeko 3.3 artikulua honakoa ezarri zuela: “Nafarroako Gobernuak urte anitzeko ekintza plan

integralak igorriko ditu, indarkeria sexistaren aurka borrokatu eta biktimei ematen zaien arreta hobetzeko, Parlamentuak eztabaida eta onets ditzan.”

Horri dagokionez, Nafarroako Gobernuak Nafarroako Foru Komunitateko Emakumeen eta Gizonen Aukera Berdintasunerako I. Plana igorri zion Parlamentuari 2006-2010 eperako. Parlamentuak 2006an onetsi zuen delako plana. Urte anitzetarako plan horrek lan arlo gehiago hartzen baditu ere, 9. arloan berariaz deskribatzen du “Emakumeen aurkako indarkeria”. Arlo horretako lan-planak helburuak, jarduerak eta ekintzak jasotzen ditu, bai eta ekintza horiek garatzeko organismo arduradunak ere.

Gainera, urtero, Nafarroako Berdintasunaren Institutuak txosten bat egiten du “Tratu txar edo/eta sexu erasoen biktimei ematen diren emakumeei laguntza integrala emateko erakundearen arteko akordioaren” jarraipenari buruz. Txosten horretan, informazioa ematen zaie zenbaitzuei –besteak beste, parlamentu-talde guztiei– arlo horretan zuzeneko arduradunen organismo publikoek gai horri buruz antolatzen dituzten programa, baliabide eta prestazioei buruz. Txosten hori Nafarroako Berdintasunaren Institutuaren web gunean dago (igualdaddegenero.navarra.es).

Iruñean, 2010eko urtarrilaren 19an

Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietako kontseilaria: María Isabel García Malo

Galdera, nazioko eta nazioarteko adopzioei buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Ioseba Eceolaza Latorre jaunak galdera egin du nazioko eta nazioarteko adopzioei buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2009ko abenduaren 24ko 123. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2010eko urtarrilaren 21ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

ERANTZUNA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Ioseba Eceolaza Latorre jaunak galdera egin du adopzioari buruz (PES 328-09). Hona hemen Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietako kontseilariaren erantzuna:

Une honetan 158 eskaera daude bi aukeratarako; hots, nazioarteko adopzioarako eta adopzio nazionalerako.

158 espediente horietatik, nazioarteko adopzioari dagozkionen egoera honako hau da:

- Bederatzi ebatzita daude adingabe baten adopzioaren bidez, eta jarraipen-fasean daude.
- Bost itxi egin ziren.

- Hogeita hamar, aldi baterako gerarazita daude, eskatzaileek hala erabakita.

- Laurogeita hamar, zenbait herrialdeetara bidali dira, eta esleipen-fasean daude (hogeita bederatzi Txinan daude; 20, Kolonbian; bederatzi, Vietnamen; zortzi, Errusian; zortzi, Perun; bost, Etiopian; bost, Bulgarian; eta honako herrialde hauetan, bana: Malin, Marokon, Filipinetan, Mexikon, Indian eta Panaman).

- Hamasei espediente daude eskatzaileek hartzeak diren zenbait erabakiren zain.

- Hamaika espediente daude herrialdeetara bidaltzekoak diren zenbait txostenen zain.

- Zazpi espediente 2009ko abenduan sartu dira, eta hasi berria dute beren ibilbidea.

Adopzio nazionalerako zerrendan bakarrik, beste hogeita hamabost eskaera daude.

Bestalde, nazioarteko adopzioari dagokionez, espediente guztiak aktibo daude. 280 espediente izapidetze-fasean daude, bidaliak izan diren herrialdeetan. Eta 59 eskatzaile daude egokitasun-ebazpenaren zain.

Bestalde, adopzio-eskaera bat formalki erregistratzen denetik egokitasun-ebazpena sinatu arterako batez besteko epea 5,2 eta 5,5 hilabete bitartean dago. Epe horrek bete egiten du Zerbitzu gutunean ezarritakoa.

Azkenik, egokitasun-ziurtagiria ez da inoiz ere ukatu, eta 2009an, 16 eskatzailek, arrazoi ezberdinegatik, erabaki zuten espedientea ixtea, balioetsiak izan ondoren.

Iruñean, 2010eko urtarrilaren 11n

Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietako kontseilaria: María Isabel García Malo

Galdera, Orreagako Kolegio-elizari edo harekin lotutako entitateei 2000tik hona emandako laguntzei buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

José Ángel Agirrebengoa Imaz jaunak galdera egin du Orreagako Kolegio-elizari edo harekin lotutako entitateei 2000tik hona emandako laguntzei buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2009ko abenduaren 24ko 123. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2010eko urtarrilaren 29an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismoko kontseilariaren erantzuna

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari José Ángel Agirrebengoa Imaz jaunak galdera (PES 330) egin zuen, eta horren idatzizko erantzuna eskatu, Orreagako Kolegio-elizari edo harekin lotutako entitateei 2000tik hona Nafarroako Gobernuak edo haren edozein enpresa publikok emandako laguntzei buruz. Hona hemen nire erantzuna:

2000. urtean:

- 9.015 euroko dirulaguntza, Orreagako Kolegio-elizari Hezkuntza eta Kultura kontseilariaren maiatzaren 5eko 134/2000 Foru Aginduaren bidez emandakoa, museoaren funtzionamendu-gastuetarako.

- 24.000 euroko dirulaguntza, Orreagako Kolegio-elizari Hezkuntza eta Kultura kontseilariaren maiatzaren 25eko 200/2000 Foru Aginduaren bidez emandakoa, haren liburutegiko ondare bibliografikoaren kontserbazio eta ezagutarazpeneko.

- Priore-etxearen estalkiak zaharberritzeko inbertsioa. Kultura Zuzendaritza Nagusiak kontra-

tatu eta finantzatu zuen obra, eta 1999tik 2000ra bitartean gauzatu zen, hiru fasetan, guztira 1.558.190,09 euroko zenbatekoan. 2000n, 2. eta 3. faseak exekutatu ziren, hurrenez hurren 391.194,25 euroan eta 529.069,90 euroan.

- Premiazkotzat jo zirenez, San Agustinen kaperaren eta dorrearen teilatuak konpontzeko obrak egin ziren. Haizete bortitz batek bi dorreetako zenbait xafla, berunezkoak, altxatu zituen. Kultura Zuzendaritza Nagusiak kontratu eta finantzatu zuen obra. Zenbatekoa 9.015 eurokoa izan zen.

2001. urtean:

- 30.050,60 euroko dirulaguntza, Orreagako Kolegio-elizari Hezkuntza eta Kultura kontseilariaren martxoaren 26ko 107/2001 Foru Aginduaren bidez emandakoa, haren liburutegiko ondare bibliografikoaren kontserbazio eta ezagutarazpeneko.

- 9.015 euroko dirulaguntza, Orreagako Kolegio-elizari Hezkuntza eta Kultura kontseilariaren apirilaren 23ko 151/2001 Foru Aginduaren bidez emandakoa, museoaren funtzionamendu-gastuetarako.

- Itzandegiko estalkiak konpontzeko inbertsioa. Kultura Zuzendaritza Nagusiak kontratu eta finantzatu zuen obra, guztira 125.705,71 euroko zenbatekoan.

- Kolegio-elizan kontrahormak indartzeko inbertsioa. Kultura Zuzendaritza Nagusiak kontratu eta finantzatu zuen obra, guztira 30.039,52 euroko zenbatekoan.

- Kolegio-elizaren barnealdea argiztatzeko inbertsioa, kolegio-elizak sustatua eta Iberdrolak finantzatua. Esku-hartze horretarako lankidetzahitzarmen bat onetsi zen. Kultura Zuzendaritza Nagusiko teknikariek idatzi zuten proiektua eta hartu zuten obraren zuzendaritza-lana. Diru-ordainketarik ez dago.

2002. urtean:

- 9.015 euroko dirulaguntza, Orreagako Kolegio-elizari emandakoa Hezkuntza eta Kultura kontseilariaren uztailaren 17ko 289/2002 Foru Aginduaren bidez, museoaren funtzionamendu-gastuetarako.

- 20.237,25 euroko dirulaguntza, Orreagako Kolegio-elizari emandakoa Hezkuntza eta Kultura kontseilariaren uztailaren 19ko 387/2002 Foru Aginduaren bidez, haren liburutegiko ondare bibliografikoaren kontserbazio eta ezagutarazpenerako.

- Benefiziodunen Etxea zaharberritzeko inbertsioa. Kultura Zuzendaritza Nagusiak kontratu eta finantzatu zuen obra, guztira 1.128.587,3 euroko zenbatekoan. Hiru fasetan exekutaturiko obra (eraikin-multzoa osatzen duen eraikin bakoitzeko fase bat), 2002tik 2005era arte. Kabildoarekin adosturik, Benefiziodunen Etxea turismorako apartamentu-eraikin bihurtzeko aukera aztertu zen.

2003. urtean:

- 9.015 euroko dirulaguntza, Orreagako Kolegio-elizari emandakoa Hezkuntza eta Kultura kontseilariaren ekainaren 24ko 325/2003 Foru Aginduaren bidez, museoaren funtzionamendu-gastuetarako.

2004. urtean:

- 9.015 euroko dirulaguntza, Orreagako Kolegio-elizari emandakoa Hezkuntza eta Kultura kontseilariaren uztailaren 16ko 225/2004 Foru Aginduaren bidez, museoaren funtzionamendu-gastuetarako.

- 17.100 euroko dirulaguntza, Orreagako Kolegio-elizari emandakoa Turismorako eta Turismoaren Sustapenerako zuzendari nagusiaren uztailaren 26ko 505/2004 Ebazpenaren bidez, haren liburutegiko ondare bibliografikoaren kontserbazio eta ezagutarazpenerako.

2005. urtean:

- 16.000 euroko dirulaguntza, Orreagako Kolegio-elizari emandakoa Hezkuntza eta Kultura Departamentua-Vianako Printzea Erakundeko kontseilariaren martxoaren 18ko 32/2005 Foru Aginduaren bidez emandakoa, haren liburutegiko ondare bibliografikoaren kontserbazio eta ezagutarazpenerako.

- 9.500 euroko dirulaguntza, Orreagako Kolegio-elizari emandakoa Hezkuntza eta Kultura Departamentua-Vianako Printzea Erakundeko kontseilariaren urriaren 3ko 401/2005 Foru Aginduaren bidez, museoaren funtzionamendu-gastuetarako.

- 13.194,52 euroko dirulaguntza, Orreagako Kolegio-elizari emandakoa Hezkuntza eta Kultura Departamentua-Vianako Printzea Erakundeko kontseilariaren urriaren 3ko 402/2005 Foru Aginduaren bidez, museoaren inbertsio-gastuetarako (inbentarioaren lehen faseko kontserbazio- eta prestaketa-azterlana).

2006. urtean:

- 10.000 euroko dirulaguntza, Orreagako Kolegio-elizari emandakoa Hezkuntza eta Kultura Departamentua-Vianako Printzea Erakundeko kontseilariaren maiatzaren 11ko 105/2006 Foru Aginduaren bidez emandakoa, haren liburutegiko ondare bibliografikoaren kontserbazio eta ezagutarazpenerako.

- 49.431,91 euroko dirulaguntza, Orreagako Kolegio-elizari emandakoa Hezkuntza eta Kultura Departamentua-Vianako Printzea Erakundeko kontseilariaren abuztuaren 28ko 252/2005 Foru Aginduaren bidez, museoaren inbertsio-gastuetarako (kontserbazio-azterlana, inbentarioaren bigarren fasearen prestaketa, xilofagoen aurkako tratamendua eta berokuntza-zirkuituaren bereiztea).

- 9.500 euroko dirulaguntza, Orreagako Kolegio-elizari emandakoa Hezkuntza eta Kultura Departamentua-Vianako Printzea Erakundeko kontseilariaren abuztuaren 28ko 253/2006 Foru Aginduaren bidez, museoaren funtzionamendu-gastuetarako.

- 2.400.000 euroko dirulaguntza, Orreagako Kolegio-elizari emandakoa Hezkuntza eta Kultura Departamentua-Vianako Printzea Erakundeko kontseilariaren uztailaren 18ko 166/2006 Foru Aginduaren bidez emandakoa, "Casa del Contador" izeneko eraikinean hiru izarreko hotel bat eraikitzeko, "Benefiziodunen Etxea" izenekoan.

2007. urtean:

- 6.000 euroko dirulaguntza, Orreagako Kolegio-elizari emandakoa Hezkuntza eta Kultura Departamentua-Vianako Printzea Erakundeko kontseilariaren apirilaren 24ko 88/2007 Foru Aginduaren bidez emandakoa, haren liburutegiko ondare bibliografikoaren kontserbazio eta ezagutarazpenerako.

- 9.500 euroko dirulaguntza, Orreagako Kolegio-elizari emandakoa Hezkuntza eta Kultura Departamentua-Vianako Printzea Erakundeko kontseilariaren abuztuaren 23ko 288/2007 Foru Aginduaren bidez, museoaren funtzionamendu-gastuetarako.

- 34.943,61 euroko dirulaguntza, Orreagako Kolegio-elizari emandakoa Hezkuntza eta Kultura Departamentua-Vianako Printzea Erakundeko kontseilariaren abuztuaren 23ko 290/2007 Foru

Aginduaren bidez, museoaren inbertsio-gastuetarako (kontserbazio-azterlana, inbentarioaren hirugarren fasearen prestaketa eta deshumidifikagailuen erosketa).

2008. urtean:

- 6.000 euroko dirulaguntza, Orreagako Kolegio-elizari emandakoa Kultura zuzendari nagusiaren maiatzaren 16ko 260/2008 Ebazpenaren bidez, haren liburutegiko ondare bibliografikoaren kontserbazio eta ezagutarazpenerako.

- 10.000 euroko dirulaguntza, Orreagako Kolegio-elizari emandakoa Kultura zuzendari nagusiaren uztailaren 3ko 471/2008 Ebazpenaren bidez, museoaren funtzionamendu-gastuetarako.

- 18.484,79 euroko dirulaguntza, Orreagako Kolegio-elizari emandakoa Kultura zuzendari nagusiaren uztailaren 3ko 472/2008 Ebazpenaren bidez, museoaren inbertsio-gastuetarako (kontserbazio-azterlana, janzki liturgikoen inbentarioaren proiektua eta termostatoaren erosketa).

- Ospitale zaharrearantz errozesentzako aterpe bat eraikitzeko inbertsioa. Nafarroako Ondare Historikoa zaintzeko Fundazioak –zeina fundazio publikoa baita– kontratatu zuen obra, eta bera ere ari da hura finantzatzen. Obra hiru fasetan ari da egiten, 2008tik 2010era arte. Lehenbiziko fasea izan zen ospitale zaharra eraistea. 2008tik 2009ra bitartean izan zen hori, eta horren kostua 884.014,82 eurokoa izan zen. Bigarren fasea 2009an eta 2010ean ari da egiten, eta xedetzat du eraikin berriaren egiturak eraikitzea. Guztizko kostua 2.391.456,80 eurokoa du; horietatik, 1.600.000 euroren ziurtagiriak eman dira 2009an. Hirugarren fasea 2010ean izanen da, eta barne-proiektua du xede. Jadanik esleitua izan da, 2.881.738,14 euroan.

2009. urtean:

- 10.000 euroko dirulaguntza, Orreagako Kolegio-elizari emandakoa Kultura zuzendari nagusiaren ekainaren 4ko 400/2009 Ebazpenaren bidez, museoaren funtzionamendu-gastuetarako.

- 12.211,35 euroko dirulaguntza, Orreagako Kolegio-elizari emandakoa Kultura zuzendari nagusiaren ekainaren 4ko 401/2008 Ebazpenaren bidez, museoaren inbertsio-gastuetarako (kontserbazio-azterlana, argiztapena berritzeari buruzko azterlana eta filtrazioen konponketa).

- 9.561 euroko dirulaguntza, Orreagako Kolegio-elizari emandakoa Kultura zuzendari nagusiaren irailaren 9ko 672/2009 Ebazpenaren bidez, Foru Komunitateko pergaminoak eta mapa historikoak zaharberritzeko laguntzetarako deialdiari jarraikiz.

- 30.492 euroko dirulaguntza, kolegio-elizako turismo-zerbitzuaren esleipen-hartzaile den Auria Orreaga, S.L. enpresari emandakoa laguntza-deialdi baten bitartez, zeina onetsi baitzen Kultura eta Turismo Departamentua-Vianako Printzea Erakundeko kontseilariaren maiatzaren 20ko 51/2009 Foru Aginduaren bidez, dohainikako bisitetarako eta turismo-jardueren deskontuetarako.

Hori guztia da jakinarazteko dudana.

Iruñean, 2010eko urtarrilaren 19an

Vianako Printzea Erakundea - Kultura eta Turismo Departamentuko kontseilaria: Juan Ramón Corpas Mauleón

Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilariaren erantzuna

Nafarroa Bai parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari José Ángel Agirrebengoa Imaz jaunak galdera egin du 2000. urteaz geroztik Orreagako Kolegio-elizari emandako laguntzei edo dirulaguntzei buruz (PES-330). Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilariak jakinarazten du jarraian eranstean dela emandako laguntzen zerrenda.

Hori jakinarazten dut, Parlamentuko Erregelamenduaren 192. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2010eko urriaren 28an

Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilaria: Begoña Sanzberro Iturriria

Kanpaina	Titularra	Unitatea	Jarduketan xehakapena	Zenbatekoa	Zenbateko osoa
2000	Orreagako Etxea eta Kolegio-eliza				22.023,28
		12,30	Sastrakak kentzea eta lurra mugitzea, basoberritzea modu naturalean gertatzeko.	6.581,03	
		1,00	Konifero-basoberritzea.	13.307,40	
		2,46	Bestelakoak. Putzua eraikitzea eta hura seinaleztatzea	1.081,88	
		1,00	Hostozabal-basoberritzea	1.052,97	
2001	Orreagako Etxea eta Kolegio-eliza				16.892,94
		10,50	A.1. Basoberritzeak: txanda luzeko koniferoak eta hostozabalak	2.413,81	
		7,00	A.2. Oihangintza-lanak. Garbiketak eta bakanketak hostozabaletan	2.109,85	
		678,00	A.2.U. Koniferoen inausketak, 2,5 metro eta 5 metro bitarteko altueran.	535,96	
		13.590,00	A.2.U. Moldaketa-inausketak hostozabaletan	1482,52	
		15.700,00	A.2. Sare- edo alanbre-itxitura mantentzeko lanak (instalazioa eta konponketa)	3116,47	
		6.000,00	A.2. Mantentze-lana. Hondaturiko alanbre-itxiturak kentzea.	4.590,00	
		1.100,00	A.3. Km. Pista-hobekuntza (ustiapena, arekak)	1.355,95	
		1,00	A.3. Bestelako produktuak. Atakak	1.288,38	
2002	Orreagako Etxea eta Kolegio-eliza				25.405,18
		10,50	A.2. Bakanketak hostozabaletan	3.127,18	
		10,20	A.1.Ha. Mantentze-lanak (makaldiak ez). Txanda luzeko koniferoak eta hostozabalak (2002. urtea).	2.448,00	
		7,50	A.1.Ha. Basoberritzeak: txanda luzeko koniferoak eta hostozabalak	19.830,00	
2003	Orreagako Etxea eta Kolegio-eliza				8.659,76
		10	A.1.Ha. Mantentze-lanak (makaldiak ez). Txanda luzeko koniferoak eta hostozabalak (2004. urtea).	973,84	
		16	A.2. Ha. Bakanketak hostozabaletan	7.078,40	
			Dokumentazio Teknikoa	260,44	
			Obra-zuzendaritza	347,08	
2004	Orreagako Etxea eta Kolegio-eliza				3.661,77
		6,50	A.1.Ha. 2005eko mantentze-lanak (ez makaldiak). Ez txanda ertaineko koniferoak	412,81	
		1.200,00	A.2. Itxiturak kentzea	1.065,60	
		0,70	A.3. Arekak eraiki eta garbitzea	467,74	
		2,00	A.3.2. UD. 60 zentimetroko diametroko tutua (baita fabrikako lana ere)	1.050,40	
			Dokumentazio Teknikoa	494,71	
			Obra-zuzendaritza	170,51	

Kanpaina	Titularra	Unitatea	Jarduketan xehakapena	Zenbatekoa	Zenbateko osoa
2005	Orreagako Etxea eta Kolegio-eliza				6.583,46
		6,50	A.1.Ha. 2006ko mantentze-lanak (ez makaldiak). Ez txanda ertaineko koniferoak	422,55	
		7,20	A.2.Ha. Hondakinak deuseztatzea – Pilaketa eta/edo erreketarik gabeko deuseztatzea. (erreferentzia-moduluaren arabera)	2.754,00	
		3.336,00	A.2 Ud. Hostozabalen moldaketa-inausketa – erreferentzia-moduluaren arabera	587,14	
		0,95	A.3.2.Km. Lur-berdinketa hobetzea	830,66	
		0,95	A.3.2.Km. Arekak eraiki eta garbitzea	648,50	
		2,00	E.1. Baso-sistemaren bidezko laguntza-neurriak – 5. kodea	815,45	
			Dokumentazio Teknikoa	231,65	
			Obra-zuzendaritza	293,51	
2006	Orreagako Etxea eta Kolegio-eliza				443,68
		6,50	A.1. Ha. Mantentze-lanak (makaldiak ez). Txanda luzeko espezieak. Udako garbiketak eta bestelakoak, 2006	422,55	
			Obra-zuzendaritza	21,13	
2007	Orreagako Etxea eta Kolegio-eliza				1.698,42
		4.063,00	A.1. Txanda luzekoak ez diren basoberritzeak babestea – Ud. Babes-hodia (altuera > 80 cm)	520,06	
		450,00	A.2. Itxiturak kentzea	1.062,00	
			Dokumentazio Teknikoa	116,36	
2008	Orreagako Etxea eta Kolegio-eliza				13.081,63
		18,90	A.2. Ha. Txanda luzeko koniferoetan bakanketak egitea – eta etorkizunerako zer zuhaitz ale utzi behar diren hautatzea.	9.371,75	
		1.320,00	A.2. Itxiturak kentzea	2.740,00	
			Dokumentazio teknikoa	435,75	
			Obra-zuzendaritza	534,13	
2000, 2001, 2002, 2003, 2004, 2005, 2006, 2007 eta 2008ko kanpainetako guztizkoa					98.450,12

Galdera, familia-bitartekotzari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Ioseba Eceolaza Latorre jaunak galdera egin du familia-bitartekotzari buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2009ko abenduaren 24ko 123. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2010eko urtarrilaren 21ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

ERANTZUNA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Ioseba Eceolaza Latorre jaunak galdera egin du familia-bitartekaritzari buruz (PES 336-09). Hona hemen Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietako kontseilariaren erantzuna:

Eceolaza jaunak, familia-bitartekaritza dela eta, honako galderak planteatu ditu:

1.- Zenbat kasutan erabili da familia-bitartekotza zerbitzua 2007an, 2008an eta 2009an familia-gatazkak konpontzeko?

- 2007an, 124 eskaera.
- 2008an, 115 eskaera.
- 2009an, 146 eskaera.

Horiek guztiak lotuta daude bai bikote-gatazkekin, bai bestelako familia-gatazkekin. Baina gehien-gehienak bikote-gatazkei dagozkie.

2.- Nolako kasuetan erabili da 22/2002 Foru Legearen 11. artikuluan zehazturiko tresna hori?

Indarkeria sexistaren aurkako neurri integralak hartzeari buruzko uztailaren 2ko 22/2002 Foru Legean, baliabide hori 12.ter artikuluan aipatzen da; izan ere, artikulua hori martxoaren 7ko 12/2003 foru legearen bidez gehitu zen.

Artikulu horren arabera, familiaren arloan eskuduna den departamentuak bitartekaritzako doako programak eskaini behar ditu bikote-krisia dagoen egoeretan edo bikote-hausturetan sor litezkeen familia-gatazkei konponbidea emateko. Betiere ulertuko da familia-bitartekaritza dela espezialistek arlo psiko-sozio-familiarrean egiten duten jarduketan, bikotearen bereiztearekin, dibortziatearekin, ezkontzaren deuseztasunarekin edo bikotearen batasuna haustearekin loturiko alderdietan ados-

tasun puntuak bilatzera bideratua, aldean arteko balizko arazo edo gorabeherak saihesteko.

Arauzko xedapen horretan ezarritakoa betetze-ko, departamentu honetako Familia Zuzendaritza Nagusiak 2005ean baliabide hori doan jarri zuen abian.

Bitartekaritzaren kasuistikak eta haren hartzaileek honako profilak dituzte:

- Banatzea erabaki duten baina izapide judizialak hasi ez dituzten bikoteak.

- Banatzea edo dibortzioa izapidetzen ari diren bikoteak, edo seme-alabengan eragina duten beste prozesu batzuetan daudenak, zeinak familia-prozesuetan eskumena duten organo judizialek deribatzen baitituzte, uste dutelako adostutako akordioak prozesurako onuragarri gerta daitezkeela.

- Banatzea edo dibortzioa legez ebatzi duten bikoteak, lehendik hartutako neurriak betearazteko krisi-egoeran jarraitzen dutenak eta neurri horiek berriz arautzeko beharra dagoenean.

- Anai-arreben arteko eta gurasoen eta seme-alaben arteko familia-gatazkak, bitartekaritza zerbitzu horretaz baliatzeko modukoak; esate baterako:

- Zaharrekin loturiko gatazkak: adineko pertsonak zaintzea; egoitzetan sartzea; ezgaitzeak; ondorengotzako zuzenbidearekin lotutako gatazkak; senideen artean elikagaiak emateko betebeharrak; aita-amen eta aitona-amonen arteko harremanetan izaten diren arazoak; aitona-amonei ilobekin harreman normalizatuak izatea eragozten duten egoerak, belaunaldien arteko gatazkak.

- Adingabeekin eta gazteekin lotutako gatazkak: harrera-egoeretatik, adopzioetatik, jakiteko eskubidetik, berregindako familietako moldaketa eta doikuntzetatik, familien topaguneetatik eta gazteen emantzipaziotik heldu diren egoerak.

3.- Zure iritzi du zure departamentuak familia-bitartekotza genero indarkeria kasu ez-larrietan erabiltzeari buruz?

Hasiera batean, generoko indarkeria zegoela edo egon zitekeela jakiten edo intuizten zen kasu guztiak zerbitzu espezializatuetara deribatzen ziren.

Ondoren, lehenagoko indarkeria gertakariak gertatu direneko banakako egoerak baloratu dira.

Aparteko izaeraz, bitartekaritza teknikak aplikatu dira bikoteen gatazkak ebazteko.

Emaitzak positiboak zirela ikusita, indarkeria-gertakariak arintzat jo zitezkeen beste kasu batzuk baloratu dira, bitartekaritza zerbitzuetara bidali dira eta egiaztatu da erabiltzaileek eta profesionalak prozedura oso positiboki baloratzen dutela.

Familia bitartekaritzara bideratutako kasu guztietan, aurretik, analisi bat egin da biktimaren egoerari buruz, halako moduan non bermatu ahal izan baita bi aldeak berdintasun egoeran negoziatuko zutelara, indarrak orekatuta zeudela eta akordioetara iritsi zitekeela aldeetako bakarra ere galtzaile sentitu gabe.

Familia bitartekaritzako prozesu batean sartzen diren kasuetan, deribazioa egin duen entitateak aztertzen ditu, halako moduan non hartutako erabakien jarraipena bermatuko baita.

Azkenik, adierazi beharra dago ekainaren 18an eta 19an, Bartzelonan sinposio bat egin zela familia-bitartekaritzari buruz. Hartan, hizlari gisa Familiaren, Haurren eta Kontsumoaren zuzendari nagusiak hartu zuen parte, antolatzaileek berriaz eskatuta. Bertan, egiaztatu ahal izan zuen Kataluniako eta beste autonomia erkidego batzuetako magistratuak bitartekaritza-teknikak aplikatzearen oso aldekoak zirela, behar ziren arreta-neurri guztiekin, baita indarkeria agerkariak izan diren egoeretan ere.

Hori dela eta, gure planteamenduak eta lortzen joan garen esperientzia indartu egin da Kataluniako Generalitateko eta beste autonomia erkidego batzuetako zerbitzuek aplikatzen dituzten irizpideekin.

Iruñean, 2010eko urtarrilaren 11n

Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietako kontseilaria: María Isabel García Malo

Galdera, “Seinaleztapena, zabalkuntza grafikoa eta teknologia berriak Nafarroako erromanikoari aplikatuta” izeneko kontusailari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Román Felones Morrás jaunak galdera egin du “Seinaleztapena, zabalkuntza grafikoa eta teknologia berriak Nafarroako erromanikoari aplikatuta” izeneko kontusailari buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2009ko abenduaren 24ko 123. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2010eko urtarrilaren 21ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

ERANTZUNA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeko foru parlamentari Román Felones Morrás jaunak galdera egin du jakiteko zein jardueratan inbertitu diren 40.000 euro Nafarroako Erromanikoan (PES 341). Hona Vianako Printzea-Kultura eta Turismo Departamentuko kontseilariaren erantzuna:

“Seinaleztapena, zabalkuntza grafikoa eta teknologia berriak Nafarroako Erromanikoari aplikatuta” kontusaileko 40.000 euroak honela erabili dira, guztira:

– Nafarroako Erromanikoari buruzko Plana. 17.400 euro ordaindu zitzaizkion Kaizen enpresari.

– “Nafarroako Erromanikoa” sentsibilizazio jardunaldiak. Erromanikoa ikuspegi desberdinetatik ezagutzeko hurbilpen bat izan dira. Abenduaren 14tik 17ra egin ziren Nafarroako Errege Artxibo Nagusian. 10.541 euro ordaindu zitzaizkion Kaizen enpresari. Honakoek hartu zuten parte: Nafarroako Unibertsitateko irakasle Clara Fernández Ladreda; Artearen Historiako doktore Carlos Martínez Álava; Artearen Historiako lizentziatu Ana Ulargui Palacio; Nafarroako Gobernuako arkitekto Leopoldo Gil Cornet; Nafarroako Gobernuako zaharberritzaile Alicia Ancho Villanueva; “Bitartean Elkarte”. Artea eta Hezkuntza”-elkarteko Marta Vidor González; Santa María La Real Fundazio-ko zuzendari nagusi Juan Carlos Prieto Vielba; eta Astrolabio Románico Elkarteko kide Javier Intxusta Laza eta Jesús Pérez de Ciriza Oficialdegui.

– Erromanikoari buruzko zabalkundeko argitalpena. 12.059 euro ordaindu zitzaizkion EGN enpresari.

Hori jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 192. artikuluan xedatuta-

koa betez.

Iruñean, 2010eko urtarrilaren 19an

Vianako Printzea Erakundea - Kultura eta Turismo kontseilaria: Ramón Corpas Mauleón

G saila:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

Antsoingo Udalari buruzko fiskalizazio txostena, 2008ko ekitaldikoa, Comptos Ganberak egina.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2010eko otsailaren 15ean egindako bilkuran, erabaki zuen Comptos Ganberak Antsoingo Udalari buruz egindako fiskalizazio txostena, 2008ko ekitaldikoa, argitara dadila agintzea.

Iruñean, 2010eko otsailaren 15ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

Antsoingo Udalari buruzko fiskalizazio txostena, 2008ko ekitaldikoa, Comptos Ganberak egina

AURKIBIDEA

Txosten exekutiboa edo laburpena (16. or.).

I. Sarrera (17. or.).

II. Helburua (18. or.).

III. Norainokoa (19. or.).

IV. Iritzia (19. or.).

IV.1. Udalaren 2008ko ekitaldiko kontu orokorra (19. or.).

IV.2. Legezkotasuna (19. or.).

IV.3. 2008ko abenduaren 31ko finantza-egoera (19. or.).

IV.4. Aurreko txostenetan emandako gomendioen betetzea. (20. or.).

V. 2008ko kontu orokor bateratuaren laburpena (21. or.).

V.1. Aurrekontuaren betetze-maila (21. or.).

V.2. Aurrekontu-emaizta (22. or.).

V.3. Diruzaintzako gerakinaren egoera-orria (22. or.).

V.4. Egoerari buruzko balantzea (23. or.).

V.5. Ekonomia- eta ondare-emaizta (24. or.).

VI. Iruzkina, ondorioztapenak eta gomendioak (25. or.).

VI.1. Alderdi orokorrak (25. or.).

VI.2. Langileak (25. or.).

VI.3. Ondasun arruntetako eta zerbitzuetako gastuak (25. or.).

VI.4. Inbertsioak (26. or.).

VI.5. Inbentarioa-lbilgetua (26. or.).

VI.6. Diru-sarrerak (26. or.).

VI.7. Patronatuak (27. or.).

VI.8. Hirigintza (27. or.).

VI.9. Gorabeherak (27. or.).

Eranskina: Kontu bateratuei buruzko txostena.

(Oharra: Aipatutako eranskinak foru parlamentarien esku daude Legebiltzarreko Zerbitzu Orokoretako bulegoetan eta honako web helbidean: www.cfnavarra.es/camara.comptos).

TXOSTEN EXEKUTIBOA EDO LABURPENA

2008ko jarduketa-programari jarraituz, Nafarroako Comptos Ganberak Antsoingo Udalaren 2008ko ekitaldiko fiskalizazioa egin du.

Antsoingo Udalak, 2008ko urtarrilaren 1ean, 10.340 biztanle dauzka.

Antsoingo Udalak, 2008ko ekitaldiaren amaieran, bi erakunde autonomo dauzka: Gazte-Berriak Kirol eta Kultura Patronatua eta Euskara Sustatzeko Patronatua. Izan ere, 2008an, Sexu-hezkuntza eta Jaiotza-kontrolerako Patronatua desegin zen.

Hauexek dira datu ekonomiko aipagarriak:

- Antsoingo Udalaren hasierako aurrekontu bateratua 11,5 milioi eurokoa da eta behin betikoa, berriz, 13,3 milioi eurokoa. Betetze maila ehuneko

88 izan da gastuetan eta ehuneko 94, berriz, diru-sarreretan.

- 2007ko ekitaldiari dagokionez, nabarmendu beharra dago bai gastuak bai diru-sarrerak aurreko ekitaldikoak baino handiagoak izan direla, eta aldaketa, bi kasuetan ere, ez dela ehuneko 40 baino handiagoa izan.

- Aitorturiko betebeharrak 11,7 milioi euro egiten dute; horietatik 3,2 milioi euro langileria gastuei dagozkie, 3,9 milioi euro ondasun arruntetan eta zerbitzuetan eginiko gastuei, eta, azkenik, 3,7 milioi euro inbertsio errealei. Azken horiek, izan ere, ehuneko 195 egin dute gora 2007an eginikoekin alderatuz gero.

- Ekitaldian aitorturiko eskubideak 12,5 milioi eurokoak izan ziren. Horietatik 4,6 milioi euro zerga, tasa eta bestelako diru-sarrerari dagozkie; 3,9 milioi euro transferentzietatik dagozkie eta 3,7 milioi euro, berriz, inbertsio errealean besterentzeari. 2007ko ekitaldiarekin alderatuta izan den aldaketa positibo garrantzitsuena inbertsio errealean besterentzeari dagokien; izan ere, horiek, 2008an, 0,34 milioi eurokoak izatetik 3,74 milioi eurokoak izatera pasatu ziren. Bariazio negatiboa, berriz, EIOZak ehuneko 34 behera egitea izan da.

- Aurrekontu emaitza doitu negatiboa izan da: 348.212 euro. 2007an, emaitza hori positiboa izan zen: 333.249 euro.

- Aurrezki garbia, azkeneko ekitaldian lehenengo aldiz, negatiboa izatera pasa da –ehuneko 0,57–, zeren eta diru-sarrera arruntak ez baitira nahikoak izan funtzionamendu gastuak eta gastu finantzarioak –44.639,40 euro– barneratzeko.

- Diruzaintzako guztizko gerakina positiboa da –5,96 milioi euro–, eta 2008 ehuneko 17 egin du gora. Gastu orokorretarako diruzaintzako gerakina, berriz, 2,5 milioi eurokoa da, eta ehuneko 11 egin du behera.

- Zor bizia, 2008ko abenduaren 31n, 2 milioi eurokoa da, 2007an baino ehuneko 9 txikiagoa.

- Udalak zorpetzeko duen ahalmena negatiboa izatera pasatu da 2008an, zorpetze-muga jaitsi egin delako.

Egindako fiskalizazio-lanetik ondorioztatzen da, Antsoingo 2008ko Kontu Orokorrari buruzko iritzia, egoki islatzen duela aurrekontuaren exekuzioa eta ondare-egoera, salbuespen bakarrarekin: inbentarioa gaurkotu gabe dago, nahiz eta hura berrikusi ahal izatea bideratuko luketen lanak egiten ari diren. Legezketasunari dagokionez, txostenean adierazten da udalaren jardura araudi indarduna errespetatuz gauzatzen dela.

Azkenik, Antsoingo Udalak finantza-egoera ona erakusten du. Hala eta guztiz ere, azken ekitaldian lehenengo aldiz, diru-sarrera arruntak ez dira nahikoak izan funtzionamendu-gastuak eta finantza-gastuak barneratzeko 44.639,40 eurotan; zorpetzeko ahalmena negatiboa izatera pasatu da eta diruzaintzako guztizko gerakinak ehuneko 17 gora egin duen arren, gastu orokorrei dagokienak, berriz, ehuneko 11 egin du behera.

Txostenean sartuta daude, prozedurak hobetze aldera, egokitzen jo diren iruzkinak, ondorioztapenak eta gomendioak.

I. SARRERA

Bere jarduketa-programari jarraikiz, Comptos Ganberak udalaren eta haren erakunde autonomoen –Gazte-Berriak Kirol eta Kultura Patronatua, Euskara Sustatzeko Patronatua– 2008ko kontu orokorraren fiskalizazioa egin du.

Antsoingo Udalak 10.340 biztanle ditu, eta hauek dira bertako zifra adierazgarrienak 2008ko abenduaren 31n:

Entitatea	Aitortutako betebeharrak	Aitortutako eskubideak	Langileak 2008-12-31n
Udala	11.053.576,70	12.339.232,34	71
Gazte-Berriak Kirol eta Kultura Patronatua	498.164,24	154.997,92	3
Euskara Sustatzeko Patronatua	117.066,85	42.544,62	1
Guztira	11.668.807,79	12.536.774,88	75

Aurreko patronatuez gainera, udalak Sexu-Hezkuntza eta Jaioza-kontrolerako Patronatua ere bazuen, baina 2008an deuseztatu zen eta 2006tik jardun gabe zegoen.

Udala Iruñerriko Mankomunitatean sarturik dago, eta haren bidez ematen ditu uraren ziklo integralaren zerbitzuak, hiri hondakin solidoen kudeaketa- eta tratamendu-zerbitzuak eta eskualdeko hiri-garraioak.

Halaber, Antsoain, Berriozar, Berriobeiti, Itza eta Txulapaingo Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatean parte hartzen du. Horren bidez emaniko zerbitzuak dira etxez etxeko laguntza, drogamenpekotasun-programa, abegi eta gizarte-orientazioa, haurtzaroa eta familia, gizarteratzea eta lan munduan sartzea, babestutako enplegu soziala eta herritar etorkinekiko ekintzak.

Etxebizitzak eta Eraikinak Zaharberritzeko Bulegoan ere parte hartzen du. Bulego hori Burlatan dago kokatuta. Halaber, ANIMSA sozietate publikoan parte hartzen du (informatikako zerbitzuak).

Toki entitateari aplikatzekoa den araubide juridikoa, funtsean, honako hauek osatzen dute:

- Nafarroako Toki Administrazioari buruzko 6/1990 Foru Legea.
- Nafarroako Toki Ogasunei buruzko 2/1995 Foru Legea.
- Nafarroako Toki Araubidea gaurkotzeari buruzko 11/2004 Foru Legea.
- Toki Araubidearen Oinarriak arautzeko 7/1985 Legea.
- 251/1993 Legegintzako Foru Dekretua, Nafarroako Administrazio Publikoen Zerbitzuko Langileen Estatutua onesten duena.
- Kontratu Publikoei buruzko 6/2006 Foru Legea.
- Dirulaguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorra.
- Lurraldearen Antolamendu eta Hirigintzari buruzko 35/2002 Foru Legea.
- Kontabilitatearen eta aurrekontuen arloan, araubide juridikoa ezartzen dutenak 1998ko irailaren 21eko 270, 271 eta 272 foru dekretuak dira, zeinak Nafarroako Toki Administrazioarako aurrekontu eta gastu publikoari, aurrekontu-egiturari eta kontabilitateari buruzkoak baitira.

- Udalaren 2008ko aurrekontuaren exekuzio oinarriak eta gainerako barne araudia.

Txostenak sei atal ditu, sarrera hau barne. Bigarren atalean txostenaren helburuak agertzen dira. Hirugarrenean, egindako lanaren norainokoa azaltzen da. Laugarrenean, Kontu Orokorrari, legezkontasunari, finantza egoerari eta aurreko gomendioen jarraipenari buruz dugun iritzia agertzen dugu. Bosgarrenean, Antsoaingo Udalaren eta haren erakunde autonomoen finantza egoera nagusiak azaltzen dira. Seigarren atalean, erakundearen antolaketa eta barne-kontrola hobetzeko egokitzat jotzen ditugun iruzkin, ondorioztapen eta gomendioak biltzen dira, arloz arlo.

Halaber, eranskin batean sartu da udalak 2008ko ekitaldiko kontuekin eginiko oroitidazkia.

Azterketa lana 2008ko ekainean eta uztailean egin dugu, batez ere.

Udaleko eta haren menpeko erakunde autonomoetako langileei eskerrak ematen dizkiegu lan hau egiteko eman diguten laguntzarengatik.

II. HELBURUA

Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legeari, Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legeari eta Comptos Ganbera arautzen duen abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legeari jarraituz, Antsoaingo Udalaren 2008ko ekitaldiko kontu orokorraren erregulartasun-fiskalizazioa (finantzarioa eta legezkontasunari buruzkoa) egin dugu.

Txostenaren helburua da honako hauei buruzko gure iritzia adieraztea:

a) Fiskalizatutako entitatearen kontu orokorrak fidelki islatzen ote duen alderdirik behinenetan entitatearen egoera ekonomiko-finantzarioa, haren aurrekontuaren likidazioa eta lorturiko emaitzak, eta guztiok onartuak diren kontabilitate-printzipio eta -arauei jarraituz prestatu ote den eta horiek uniformetasunez aplikatu diren.

b) Entitateak 2008an izandako jarduerari aplikatzekoa zaion legediaren betetze-maila.

c) 2008ko abenduaren 31n udalak zeukan egoera finantzarioa.

d) Azken fiskalizazio-txostenetan emandako gomendioak noraino bete diren.

Txostenarekin batera, beharrezkoak diren gomendioak eman ditugu, entitatearen kudeaketa ekonomiko-finantzarioa hobetze aldera.

III. NORAINOKOA

Comptos Ganberak Antsoaingo Udalaren Kontu Orokorraren fiskalizazioa egin du –kontu horretan sartuta daude udalarena berarena eta haren erakunde autonomoena–.

Hona hemen udalak aurkezturiko finantzen egoera-orri nagusiak:

- Aurrekontuaren betetze-maila, ekitaldiko aurrekontu-emaitza eta udalaren eta haren erakunde autonomoen diruzaintza-gerakina.
- Entitatearen eta haren erakunde autonomoen egoera-balantzea.
- Entitatearen eta haren erakunde autonomoen galera eta irabazien kontua.
- Zorraren egoera-orria eta oroitidazkia.

Udalak kontabilitate publikoari buruzko plan orokorra ezarrita dauka, eta horrekin kudeatzen da, halaber, erakunde autonomoen kontabilitatea; erakunde horiek organo-kode baten bidez identifikatzen dira.

Lana gauzatu da Espainiako Estatuko Kanpo Kontroleko Organo Publikoak Koordinatzeko Batzordeak onetsitako eta Comptos Ganberaren fiskalizazio-eskuliburuan jasotako sektore publikoaren auditoriari buruzko printzipioei eta araei jarraituz, eta azterlanaren helburuen eta inguruabarren arabera beharrezkotzat jo ditugun hauta-proba edo prozedura tekniko guztiak aplikatuz. Prozedura horien artean erabili da laginen teknika, edo kontusail edo eragiketa zehatz hautatuak berrikustekoa.

Zehazki, udalari eta bere erakunde autonomoen dagokienez, aurrekontuen eta finantzen egoera-orrien edukia eta koherentzia aztertu dira, bai eta aplikaturiko oinarritzko prozedura administratiboak ere; ebaluatu dira, halaber, antolaketa, kontabilitatea eta barne-kontroleko alderdi nabarmenenak.

IV. IRITZIA

Egin dugun lanaren norainokoarekin bat, Antsoaingo Udalaren 2008ko ekitaldiko kontu orokorra aztertu dugu. Kontu hori prestatzea, bai eta haren edukia ere, udalaren ardura da, eta laburbilduta jasota dago txosten honen V. atalean.

Gure lanaren emaitza gisa, honako iritzi honetara iritsi gara:

IV.1. UDALAREN 2008ko EKITALDIKO KONTU OROKORRA

Udalaren jabetzapeko ondasunen inbentarioa 1995ekoa da. Ibilgetuko kontuen zati bat aztertzeko ari da. Horrek bidea emanen luke hura gaurkotzeko.

Aurreko lerrokadan aipaturiko salbuespenarengatik izan ezik, udalaren 2008ko ekitaldiko Kontu Orokorrak fidelki islatzen ditu, alderdirik behinengatant, gastuen eta diru-sarreraren aurrekontuen likidazioa, abenduaren 31ko ondare-egoera eta eginiko eragiketen emaitzak. Halaber, behar bezala interpretatu eta ulertzeko informazio beharrezkoa eta nahikoa du, aurreko ekitaldian aplikaturikoekin bat datozen eta guztiok onartuak diren kontabilitate publikoko printzipio eta araei jarraituz.

IV.2 LEGEZKOTASUNA

Eginiko lanaren norainokoaren neurrian, esan daiteke 2008an udalaren jardura ekonomiko eta finantzarioa oro har legezketasun printzipioari jarraituz egin dela.

IV.3 2008ko ABENDUAREN 31ko FINANTZA-EGOERA

Antsoaingo Udalak, ikuspuntu finantzariotik, Comptos Ganbera honek aurreko txostenetan adierazi duen bezala, finantza-egoera ona dauka. Hala eta guztiz ere, azken ekitaldietan lehenengo aldiz, diru-sarrera arruntak ez dira nahikoak izan funtzionamendu-gastuak eta finantza-gastuak berneratzeko 44.639,40 eurotan; zorpetzeko ahalmena negatiboa izatera pasatu da eta diruzaintzako guztizko gerakinak ehuneko 17 gora egin duen arren, gastu orokorrei dagokienak, berriz, ehuneko 11 egin du behera.

Ondoren, datu ekonomiko aipagarrienetako batzuk azalduko ditugu:

Antsoaingo Udalaren hasierako aurrekontu bateratua 11,5 milioi eurokoa da eta behin betikoa, berriz, 13,3 milioi eurokoa. Aurrekontu-aldaketek 1,8 milioi euro egiten dute, eta, batez ere, inbertsio errealean 6. kapituluan izan dute eragina.

Aitorturiko betebeharrak 11,7 milioi euro egiten dute eta aitorturiko eskubideek, berriz, 12,5 milioi euro. Betetze maila ehuneko 88 izan da gastuetan eta ehuneko 94, berriz, diru-sarreretan.

2007ko ekitaldiarekin alderatuta, nabarmendu beharra dago gastuen aurrekontuak eta diru-sarreraren aurrekontuak gora egin dutela, bi kasuetan % 40 baino gehiago.

Gastuen kapituluaren artean, garrantzitsuenak honakoak dira: ondasun arruntei eta zerbitzuei dagozkienak -guztira aitorturiko guztizkoaren ehuneko 33 egiten dute-; langileei dagozkienak -ehuneko 28- eta inbertsio errealei dagozkienak -ehuneko 32-. Azken horiek ehuneko 195 egin dute gora 2007an eginiko inbertsioen aldean, eta ondasun arruntetan eta zerbitzuetan eginiko gastuek, berriz, ehuneko 20 egin dute gora.

Diru-sarrerei dagokienez, ehuneko 21 zuzeneko eta zeharkako zergetatik heldu dira; ehuneko 30, berriz, inbertsio errealeen besterentzetik, eta ehuneko 31, azkenik, transferentzietatik. 2007ko ekitaldiarekin alderatuta izan den aldageta positibo garrantzitsuena inbertsio errealeen besterentzei dagokie; izan ere, horiek, 2007an, 0,34 milioi eurokoak izatetik 2008an 3,74 milioi eurokoak izatera pasatu ziren. Bariazio negatiboa, berriz, EIOZak ehuneko 34 behera egitea izan da.

Aurrekontu emaitza doitu negatiboa izan da: 348.212 euro (ikus V 2 epigrafea). 2007an, emaitza hori positiboa izan zen: 333.249 euro.

Aurrezki garbia, azkeneko ekitaldian lehenengo aldiz, negatiboa izatera pasa da -ehuneko 0,57-, zeren eta diru-sarrera arruntak ez baitira nahikoak izan funtzionamendu gastuak eta gastu finantzarioak -44.639,40 euro- barneratzeko.

2008ko ekitaldiaren amaiera aldean, diruzaintzako guztizko gerakina (ikus V. 3 epigrafea) 5,96

milioi eurokoa da. Horietatik, gastu orokorretarako diruzaintzako gerakinari 2,5 milioi euro dagozkie. 2007. urtearekin alderatuta, diruzaintzako guztizko gerakinak ehuneko 17 egin du gora; gastu orokorretarako diruzaintzako gerakinak, berriz, ehuneko 11 egin du behera.

Ekitaldiko zama finantzarioak ehuneko 18 egin du gora, eraikuntza-enpresa bati ordaindutako berandutzako interesen ondorioz; horiek, hain zuzen ere, epai judicial irmo batez aitortu zitzaizkion enpresari.

2008ko abenduaren 31n, zor bizia 2.015.314 eurokoa zen. Zorpetzearen maila ehuneko 3,8an dago; zorpetzeko muga, berriz, ehuneko 3,2an. Azken ekitaldian, lehenengo aldiz, udalak zorpetzeko ahalmen negatiboa dauka.

IV.4. AURREKO TXOSTENETAN EMANDAKO GOMENDIOEN BETETZEA.

2007ko ekitaldiari buruzko txostena 2008ko azaroan egin ezenez, 2006ko ekitaldiko gomendioen betetze-maila egiaztatzea izan da gure lanaren ardatza.

Oro har, 2006ko ekitaldiari buruzko fiskalizazio-txostenean jasotako gomendioak aplikatzeko beharrezkoak diren neurriak hartzen ari dira; funtsean, inbentarioari dagozkionak. Hala ere, oraindik indardun diren gomendioak txosten honetako VI. puntuan jasota daude.

V. 2008ko KONTU OROKOR BATERATUAREN LABURPENA

V.1. AURREKONTUAREN BETETZE-MAILA

Gastuak kapitulu ekonomikoen arabera

	Gastuen kapituluak	Hasierako aurreikuspena	Aldaketak	Behin betiko aurreikuspenak	Aitoruriko betebehar garbiak	Betetakoa (%)	Ordaindutakoa	Ordainketak (%)	Ordaintzeko dagoena
1	Langileria gastuak	3.649.791	(45.882)	3.603.909	3.242.892	90	3.196.493	99	46.399
2	Ondasun arruntan eta zerbitzuen gastuak	4.077.175	24.591	4.101.766	3.892.139	95	3.471.448	89	420.691
3	Finantza-gastuak	141.402	19.271	160.673	156.182	97	103.907	67	52.275
4	Transferentzia arruntak	606.873	15.180	622.053	484.127	78	462.439	95	21.688
6	Inbertsio errealak	2.864.476	1.780.414	4.644.890	3.749.713	81	2.846.047	76	903.666
9	Finantza-pasiboak	148.348	-	148.348	143.755	97	143.755	100	-
	Gastuak, guztira	11.488.065	1.793.574	13.281.639	11.668.808	88	10.224.089	88	1.444.719

Diru-sarrerak kapitulu ekonomikoen arabera

	Diru-sarreraren kapituluak	Hasierako aurreikuspena	Aldaketak	Behin betiko aurreikuspenak	Aitoruriko eskubide garbiak	Betetakoa (%)	Kitatutakoa, guztira	Kobrantsak (%)	Kobrantszeko dagoena
1	Zuzeneko zergak	2.349.236	-	2.349.236	1.909.214	81	1.663.647	87	245.567
2	Zeharkako zergak	965.000	-	965.000	668.191	69	350.476	52	317.715
3	Tasak, prezio publikoak eta beste diru-sarrera batzuk	2.754.015	-	2.754.015	2.037.563	74	1.819.119	89	218.444
4	Transferentzia arruntak	2.896.552	4.513	2.901.065	2.962.109	102	2.798.373	94	163.736
5	Ondarezko diru-sarrerak eta herri-lurren aprobetxamendua.	126.259	-	126.259	297.378	236	277.386	93	19.992
6	Inbertsio errealak besterenetza	2.007.000	255.097	2.262.097	3.746.901	166	3.746.901	100	-
7	Kapital-transferentziak	390.003	85.303	475.306	915.419	193	688.418	75	227.001
8	Finantza-aktiboak	-	1.448.661	1.448.661	-	0	-	-	-
	Diru-sarrerak, guztira	11.488.065	1.793.574	13.281.639	12.536.775	94	11.344.320	90	1.192.455

V.2. AURREKONTU-EMAITZA

Aitorturiko eskubideak (2008)	12.536.775
(Aitorturiko betebeharrak, 2008)	(11.668.808)
Aurrekontu-emaiza	867.967
(Urteko finantzaketa-desbideraketa positiboak)	(2.259.188)
Urteko desbideratze finantzario negatiboak	979.296
Diruzaintzako gerakinarekin finantzaturiko gastuak	63.713
Aurrekontu-emaiza doitua	(348.212)

V.3 DIRUZAINZAKO GERAKINAREN EGOERA-ORRIA

Kontzeptua	Saldoa
+ Indarreko ekitaldiko eskubideak, kobratzeko daudenak	1.195.833
+ Itxitako ekitaldiko eskubideak, kobratzeko daudenak	1.171.479
+ Aurrekontuz kanpoko diru-sarrerak	219.857
+ Ordainketen itzulketak	210
- Bilketa zaileko eskubideak	(599.737)
- Aplikatzeko dauden diru-sarrerak	-
+ Kobratzeko dauden eskubideak	1.987.642
- Indarreko ekitaldiko betebeharrak, ordaintzeko daudenak	(1.444.930)
- Itxitako ekitaldiko betebeharrak, ordaintzeko daudenak	(221.627)
- Diru-sarreren itzulketak	(3.379)
+ Aplikatzeko dauden gastuak	184
- Aurrekontuz kanpoko gastuak	(420.547)
- Ordaintzeko dauden betebeharrak	(2.090.299)
+ Diruzaintzako funts likidoak	6.063.646
+ Finantziazio-desbideraketa metatu negatiboak	-
= Diruzaintzako gerakina, orotara	5.960.989
Finantzaketa atxikia duten gastuen diruzaintza-gerakina	-
Diruzaintza-gerakina, baliabide atxikiak direla-eta	3.467.927
Gastu orokorretarako diruzaintza-gerakina	2.493.062

V.4. EGOERARI BURUZKO BALANTZEA

AKTIBOA

Izena	2008	2007	Aldea
1 Ibilgetu materiala	22.346.441	22.069.453	276.988
2 Ibilgetu ez-materiala	527.414	519.271	8.143
3 Erabilera orokorrerako azpiegiturak eta ondasunak	35.977.293	34.548.719	1.428.574
4 Herri-ondasunak	15.730	15.731	-1
5 Ibilgetu finantzarioa	2.342	2.342	
A IBILGETUA	58.869.220	57.155.516	1.713.704
7 Izakinak	-	-	-
8 Zordunak	2.587.379	2.543.225	44.154
9 Kontu finantzarioak	6.064.249	4.980.454	1.083.795
10 Egoera iragankorrek, aldizkatzeak eragindako doitzeak	-	-	-
11 Aplikatzeko dagoen emaitza	-	-	-
H ZIRKULATZAILEA	8.651.628	7.523.679	1.127.949
AKTIBOA, GUZTIRA	67.520.848	64.679.195	2.841.653

PASIBOA

Izena	2008	2007	Aldea
Ondarea eta erreserbak	56.759.953	56.145.710	614.243
Ekitaldiko emaitza ekonomikoak (etekina)	1.623.428	608.013	1.015.415
Kapital-dirulaguntzak	5.031.670	4.055.129	976.541
A FUNTS BEREKIAK	63.415.051	60.808.852	2.606.199
Jasotako prestamenak, maileguak, fidantzak eta gordailuak	2.015.314	2.159.069	(143.755)
H EPE LUZEKO HARTZEKODUNAK	2.015.314	2.159.069	(143.755)
Itxitako aurrekontuetako hartzekodunak eta aurrekontuez kanpokoak	2.090.483	1.351.274	739.209
Aplikatzeko dauden kontusailak eta aldizkatzearen ondoriozko doitzeak	-	360.000	(360.000)
D EPE LABURREKO HARTZEKODUNAK	2.090.483	1.711.274	379.209
PASIBOA, GUZTIRA	67.520.848	64.679.195	2.841.653

V.5. EKONOMIA- ETA ONDARE-EMAITZA

Izena	2008	2007
61- Langileria gastuak	(3.308.143)	(3.047.641)
62- Finantza-gastuak	(156.182)	(98.297)
63- Zergak	(25.319)	(28.492)
64- Kanpoko lan, hornidura eta zerbitzuak	(3.801.569)	(3.142.808)
67- Transferentzia arruntak	(484.128)	(440.559)
69- Amortizaziorako zuzkidura	(1.140.620)	(1.075.329)
GASTU ARRUNTAK, GUZTIRA	(8.915.961)	(7.833.126)
70- Salmentak	1.426.208	1.321.994
71- Ondasunaren eta enpresaren errenta	896.401	738.341
72- Produkzioari eta inportazioari loturiko tributuak	1.817.412	2.061.130
73- Errentaren eta ondarearen gaineko zerga arruntak	416.375	379.904
76- Transferentzia arruntak	2.962.109	2.661.659
77- Kapitalaren gaineko zergak	343.618	356.861
78- Beste diru-sarrera batzuk	(48.791)	848.063
DIRU-SARRERA ARRUNTAK, GUZTIRA	7.813.332	8.367.952
EKITALDIKO EMAITZA ARRUNTAK (saldo hartzekoduna)	(1.102.629)	534.826
Ibilgetuko elementuak, dohainikako eskurapenak	2.845.281	80.892
Bestelako abonu-arrazoiak	-	(508)
EKITALDIKO APARTEKO EMAITZAK (saldo hartzekoduna)	2.845.281	80.384
Bestelako abonu-arrazoiak	-	-
Itxitako aurrekontuetako eskubide eta betebeharren aldaketa	(119.224)	(7.198)
ETEKIN GARBIA, GUZTIRA (saldo hartzekoduna)	1.623.428	608.012

VI. IRUZKINAK, ONDORIOZTAPENAK ETA GOMENDIOAK

Jarraian azaltzen dira, kudeaketa-arlo garrantzitsuenetako bakoitzerako, gure aburuz udalak bere egin behar dituen gomendio nagusiak, bere antolaketa, prozedura, kontabilitate- eta barne-kontrolako sistemak hobetzeko.

VI.1. ALDERDI OROKORRAK

2008ko ekitaldirako aurrekontuaren proiektua udaleko Osoko Bilkurak onetsi zuen 2008ko otsailaren 27an, eta apirilean hartu zuen indarra. Hori dela eta, ez zen lege ezarritako epeetan onetsi.

Hona gure gomendioak:

- *Aurrekontua eta hari dagozkion eranskinak onetsi behar dira haiek aplikatu behar diren ekitaldia hasi baino lehen.*
- *Kutxako kontaketa aldizkakoak dokumentatzea.*

VI.2. LANGILEAK

Langile-gastuek 3.242.892 euro egin dute, eta ekitaldian aitorturiko betebeharrak guztien ehuneko

28 egiten dute. 2007. urtearen aldean, ehuneko 10 egin du gora.

Nominaren prestaketa eta kontrola kontabilitatekoaz beste aplikazio informatiko baten bidez egiten dira, eta, horrenbestez, datuak eskuz erregistratu behar izaten dira.

Hona gure gomendioak:

- *Beharrezkoak diren prozedurak ezartzea, nominen aplikazioak datuak automatikoki pasatuz kontabilitatera, eskuz eginez gero egin daitezkeen akatsak saihesteko.*

VI.3. ONDASUN ARRUNTETAKO ETA ZERBITZUETAKO GASTUAK

2008ko ekitaldian ondasun arruntengatik eta zerbitzuek aitorturiko betebeharrak 3.892.139 euro egiten dute, eta aurrekontuan exekutatu den guztiaren ehuneko 33 egiten dute. Betetze maila ehuneko 95ekoa izan da eta 2007. urtearen aldean, ehuneko 20ko igoera izan da.

Hauxe da banaketa:

	Aitortutako obligazioak 2008an
Errentamenduak	67.384
Konponketak, mantentze-lanak eta zaintza	397.495
Materiala, hornidurak eta bestelakoak	3.354.792
Zerbitzuaren ondoriozko kalteordainak	65.251
Argitalpen gastuak	7.217

Udalan prozedura normalizatua aplikatzen da erosketen kudeaketarako, eta idatziz agertzen da izapideak eta arloak zein diren.

Zerbitzuak kontratatzeke espediente hauek aztertu ditugu:

Kontratua	Prozedura	Adjudikazioa
Kulturaren, kirolaren eta zaintzaren arloko hainbat zerbitzu	Irekia	963.736
Gaztediaren etxea	Irekia	143.557
Hiriko garbiketa	Irekia	253.727
Berdegunek mantentzeko zerbitzua	Irekia	105.825

Horiek aztertuta, ondorioztapena da kontratua legeak eskatzen duenari jarraikiz izapidetu dela.

VI.4 INBERTSIOAK

2008. urterako aurreikusitako inbertsioen ehuneko 81 bete da, eta 3.749.713 euro egin dute, hain zuzen ere 2008ko ekitaldian aitorturiko bete-behar guztien ehuneko 32. 2007. urtearen aldean, ehuneko 195 egin dute gora.

Inbertsio horien xedeari dagokionez, 1.421.351 euro erabilera publikoko inbertsioetarako dira eta 2.262.805 euro berriz, zerbitzuen funtzionamenduari lotuta daude.

Hurrengo inbertsio-espedientea aztertu dugu.

Kontratua	Prozedura	Lizitazioa	Adjudikazioa
Nabe gisako biltegi bat eraikitzea	Irekia	750.000	743.396

Horiek aztertuta, ondorioztapena da kontratua legeak eskatzen duenari jarraikiz izapidetu dela.

Halaber, egiaztatu da kontabilitateko oharren euskarri dokumentala egokia dela; guztira, 2.302.591 euro dira, eta haien artean dago Nafarroako Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salak 2008ko abenduaren 30ean emaniko 721/2008 apelazio-epaian zehaztu zuen prezioen berrikuspenaren ondorioz udalak eginiko likidazioa, 176.820,69 euro egiten duena.

Epai hori lotuta dago kirol instalazio berriak egin dituen eraikuntza enpresak aurkeztutako erreklamazioarekin, Antsoingo Udalaren 2005eko abenduaren 22ko ebazpenaren aurkakoa. Izan ere, ebazpen horrek 305.609,61 euroko zehapena ezartzen zion enpresari obren exekuzioan izaniko atzerapenarengatik. Ebazpen hori zuzenbidearen arabera dela deklaratu da.

VI.5 INBENTARIOA-IBILGETUA

Udalaren ondasunen inbentarioa 1995ekoa da, eta gaurkotzeko dago.

Udal zerbitzuetako kostuak aztertzeke xedez, 2007an ibilgetuko kontuen zati bat analizatu zen, eta horrek bidea emanen luke 1995eko inbentarioa berrikusteko.

Prozesu horrek 2008an jarraitu du, eta "Ibilgetu materialeko" (22.346.441 euro), "Ibilgetu ez-materialeko" (527.414 euro) eta "Herri-ondasunen" (15.730 euro) kontabilitate-kontuen osaketa zehatza lortzeko bidea eman du.

"Azpiegiturak eta erabilera orokorrerako ondasunak" (35.977.293 euro) kontua analizatzeko zain dago.

Hona gure gomendioak:

- *Udal ondasunen inbentarioaren eguneratze-prozesua burutzea.*

- *Udal inbentarioa etengabe eguneratzeko bidea emanen duten prozedurak diseinatu eta*

aplikatzea, ibilgetuari buruzko dokumentazioa artxibatzeke eta altak eta bajak kontabilizatzeko prozedurak definituz eta ezarriz, kontu hauei aplikatzekoak zaizkien kontabilitate-irizpideen arabera.

VI.6 DIRU-SARRERAK

2008an aitorturiko eskubideek 12.536.775 euro egiten dute; ehuneko 41eko hazkundera izan da aurreko urtearekin alderatuta.

Zuzeneko eta zeharkako zergek guztira 2.577.405 euro egiten dute, hain zuzen ere aitorturiko eskubideen ehuneko 21. 2007. urteko datuekin alderatuta, zuzeneko zergek ehuneko 6 egin dute gora; zeharkako zergek —eraikuntza, instalazio eta obren gaineko zerga besterik ez dago—, berriz, ehuneko 34 egin dute behera.

Zergen laginari dagokionez, egiaztatu dugu oro har behar bezala kudeatzen direla, haiei buruzko araudian ezarritakoari jarraikiz likidatzen eta kobratzen direla, eta egokiro kontabilizatuta daudela.

Tasek eta bestelako diru-sarrerek 2.037.563 euro egin dute, eta diru-sarrera guztien ehuneko 16 egiten dute. 2007. urtearekin alderatuta, ehuneko 10 egin dute behera, zeren eta ekitaldi horretan aparteko diru-sarrera bat aitortu baitzen.

Udalak azterlan bat egin du 2008an emandako zerbitzuek izan dituzten kostuei buruz, eta horren emaitza izan da tasen eta prezio publikoen estalduraren bidezko maila, oro har, kostuaren azpitik dagoela.

Inbertsio errealak besterentzearen ondoriozko diru-sarrerek, 3.746.901 eurokoak, aitorturiko eskubideen ehuneko 30 egiten dute. Nabarmen-tzekoa da ST Unitateko 4. lursaila 3.600.000 euroren truke (BEZa kenduta) saltzearen ondoriozko diru-sarrera; zuzeneko besterentze bat zian da, enkante publikoaren prozeduraz gauzatutakoa 2004ko otsailean. Lizitazioaren hasierako prezioa 3.505.912,68 eurokoa zen, eta eman gabe deklaratu zen lizitatzailerik ez zelako aurkeztu.

VI.7 PATRONATUAK

Gazte-Berriak Kirol eta Kultura Patronatuak 2008an 498.164 euroko diru-sarrerak izan ditu. Horietatik, ehuneko 66 ondasun arruntetan eta zerbitzuetan eginiko gastuei dagozkie eta ehuneko 32, berriz, langile gastuei. Diru-sarrerak 154.998 euro izan dira; ehuneko 88 tasen ondorioz eta gainerako ehuneko 12a transferentzia arrunten ondorioz.

Euskara Patronatuak 117.066 euroko gastuak eta 42.545 euroko diru-sarrerak dauzka. Horietatik gehienak udalak sorturiko transferentzietatik heldu dira.

Udalak erakunde autonomoen kontabilitatea kudeatzen du, organismo horiek kode organiko batez identifikaturik; hori dela eta, patronatu bakoitzaren defizita ekarpen bat da, udal zerbitzu bat balitz bezala.

Hona gure gomendioak:

- *Zehaztea erakunde autonomoen benetako autonomia maila, eta aztertzea posible ote den horiek udal zerbitzu bihurtzea, efizientzia, eragin-kortasun eta kontrol irizpideei jarraituz.*

Gomendio honi dagokionez, udaleko Osoko Bilkurak, 2009ko urtarrilaren 28an, behin betiko onespena eman zion Antsoaingo Euskara Patronatua desegiteari.

VI.8 HIRIGINTZA

2008an, udal planeko ondoko aldaketak gertatu dira:

- ST Unitateko 4. lursailerako zehaztutako erabileraren aldaketa xehakatu eta puntuala.
- ST Unitateko C1 lursailaren (biderako lursaila da) lur azpiaren kalifikazio juridikoaren aldaketa.

Udalak aurkezturiko oroitidazkian –eranskinean ageri da–, aldaketa horiei buruzko informazioa ematen da eta zehaztasunak ematen dira hirigintza planeamenduaren garapenari eta exekuzioari buruz. Halaber, 2008ko abenduaren 31n eraikitze-ko dauden lursailak aipatzen dira, bai eta ondoko-

ak ere: lurzorua udal patronatuari dagozkion ondasunak, eraikitako babes ofizialeko etxebizitzak eta azkeneko ekitaldietan ondarearen eta hirigintza aprobetxamenduen besterentzearen ondorioz lortutako diru-sarrerei buruzko kontabilitate-informazioa.

Nahiz eta udalak bere planeamendua ez duen homologatu eta egokitu Lurraldearen Antolamendu eta Hirigintzari buruzko 35/2002 Foru Legeko zehaztapenetara, 2007. urteari buruzko fiskalizazio-txostenean adierazten zen bezala, udalak bai ez tatu zuen ezen udal-plan indarduna ia osoki exekutatu zela, “eta beraz, egokitzapena jardun gehienbat teorikoa litzateke, eragin praktikodun urratsa baino gehiago”. Hala ere, aurrera eramaten diren hirigintza-ekintzetan Lurraldearen Antolamendu eta Hirigintzari buruzko Foru Legeko zehaztapen horiek aintzat hartu beharko dira.

Dena den, 2009ko martxoaren 25ean, udalak erabaki zuen Antsoaingo udal dermioaren esparrurako udal plana berraztertze prozesuari ekitea.

VI.9 GORABEHERRAK

2008ko abenduaren 31n, honako erreklamazio judizial hauek dira nabarmengarriak:

- Kirol instalazio berriak eraiki dituen enpresaren erreklamazioa, eraikuntza-gabeziak konpontzeko obren ordezkio exekuzioan eginiko gastuen likidazioaren aurkakoa; guztira, 362.256,87 euro dira.

- “Antzinako igerilekuak egitea” proiektua idatzi zuen arkitektoaren erreklamazioa, atzemandako eraikuntza-akatsak konpontzeko obren ordezkio exekuzioan eginiko gastuen eta sorturiko kalte-galeren likidazioaren aurka; 366.174,39 euro egiten ditu.

Txosten hau eman da indarrean dagoen araudiak ezarritako izapide guztiak bete ondoren.

Iruñean, 2010eko otsailaren 5ean

Lehendakaria, Luis Muñoz Garde

